

TREBAKUNTZA 2018-03: ERDARAKADAK II

Udal idazki askotan erdarakadak sartzen dira; hau da, gaztelaniatik hartutako hitzak, espresioak eta abarrak euskarara ekartzen dira, euskarazko hitz edo espresio jatorrak baztertuta. Aurreko hilabetean erdarakada batzuk ikusi genituen, eta hilabete honetan beste batzuk.

OHARRA: Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. ** Idazkariak bere iritzia eman zuen hirigintza baimenei buruz.*
2. ** Udal langileek greba bat egin dute.*
3. ** Ez du pena merezi puntu hori deialdian sartzea.*
4. ** Bost hizkuntza ezagutzen ditu.*
5. ** Ezagutzera eman ditu hurrengo lau urteetarako ildo nagusiak.*
6. ** Beste barik, agurtzen naiz.*
7. ** Biharko bileran ikusiko gara.*
8. ** Realak galdu egin zuen, oso ondo jolastu arren.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Gaztelaniazko "su opinión" esamoldearen kalkoa da, baina berez euskarak ez du "bere" hori behar. Badakigu iritzia berea dena, ez beste inorena.

Ad. Idazkariak **iritzia** eman zuen hirigintza baimenei buruz.

2. Hau ere gaztelaniazko "una huelga" espresioaren kalkoa da. Bat zenbatzailea da, eta *bi* edo *hiru*-rengandik bereizteko erabili behar da; bestela, ez da beharrezkoa.

Ad. Udal langileek **greba** egin dute.

Izan ere, testuinguru gehienetan, zentzugabea da adieraztea greba bat egin dutela, eta ez bi edo hiru.

3. "Pena" hori sobran dago euskaraz, *merezi* erabiltzen badugu.

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uema.eus

Ad. **Ez du merezi** puntu hori deialdian sartzea.

4. Gaztelaniazko "conocer" esateko, euskarak bi hitz ditu: ezagutu eta jakin. Askotan, *ezagutu* erabiltzen dugu *jakin*-en lekuan, gaztelaniaren eraginez.

Ad. *Bost hizkuntza* **dakizki / hitz egiten ditu**.

5. "Ezagutzera eman" esamoldea gaztelaniazko "dar a conocer" horren kalkoa da. Euskaraz badauzkagu modu jatorragoak gauza bera esateko:

Ad. *Hurrengo lau urteetarako ildo nagusiak* **jakinarazi** ditu.

6. Gaztelaniazko "me despido" espresioaren parekoa da "agurtzen naiz", euskaldun zahar batek sekula esango ez lukeena.

Ad. *Beste barik,* **agur/agurtzen zaitut**.

7. Hau ere gaztelaniazko "nos vemos" esamoldetik hartua.

Ad. *Biharko bileran* **ikusiko dugu elkar**:

8. Kirola denean, edo lehia adierazi nahi denean, euskaraz "jokatu" erabiltzen dugu (pilotan, futbolean, musean...), eta "jolastu" umeez egiten dutenari deitzen diogu, adibidez, parkean jolastu.

Ad. *Realak galdu egin zuen, oso ondo* **jokatu** arren.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMako teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99